

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Europako Hizkuntzen Egunarekin bat egiten du

Hezkuntza komunitateari dei egiten dio antolatutako ekintzetan parte hartzera

Astelehena, 2017.eko irailak 25

Nafarroako Gobernuak ikastetxeei dei egin die bihar Europako Hizkuntzen Egunarekin bat egin dezaten. Irailaren 26arekin ospatzen da Europako Hizkuntzen Eguna; hala erabaki zuen Nazio Batuen Elkarteak 2001ean.

Urtero legez, Nafarroako ikastetxeek hainbat ekintza antolatu dituzte hizkuntza aniztasuna eta beste hizkuntzekiko errespetua sustatzeko; Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak, esaterako, italiararen inguruan ospatuko du Europako Hizkuntzen eguna “Fatti Conquistare dall’Italia!” ekimenarekin.

Europar Batasunean 500 milioi biztanle bizi dira gaur egun, 28 estatu-kidek osatzen dute, 3 alfabeto erabiltzen dira eta 24 hizkuntza ofizial ditu; horietako batzuk mundu zabalean hitz egiten dira, gainera. Baina gure ondasunaren parte ere badira Europako hainbat erregiotan hitz egiten diren beste 60 hizkuntza, tartean, geurean: euskara. Gainera, etorkinek ere euren hizkuntza propioak ekarri dituzte gure artera; Europar Batasunean 175 nazio-hizkuntza inguru bizi dira elkarrekin.

Hizkuntza askoren elkarbizitza harmoniatsua aniztasunean bateratzeko nahia Europar Batasunaren ikurretako bat da, europar proiektuaren oinarrietako bat.

Hizkuntzek identitate pertsonalak definitzen dituzte, baina, aldi berean, herentzia amankomunaren parte dira. Pertsonen arteko zubi izan daitezke eta beste herrialde eta kulturetara ate ere bai, elkar ulertzea erraztuz. Eleaniztasunaren politikak arrakasta izatea lagungarria da herritarren aukerak hobetzeko eta enplegu-aukerak, zerbitzuetara sarbidea eta eskubideak bermatzeko, baita elkartasuna sustatu nahiz kulturen arteko elkarriketa eta kohesio soziala hobetzeko ere.

Aniztasun linguistikoa jasotzen da Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean, 22. artikuluan: “Batasunak kultura, erlijio eta hizkuntza aniztasuna errespetatzen du”. Europar Batasunaren Funtzionamendu Hitzarmenak, 3. artikuluan, dio: “Batasunak bere kultura eta hizkuntza aniztasun aberatsa errespetatuko ditu eta europar kultura-ondarearen zaintzaren eta garapenaren alde lan egingo du”.

Horregatik guztiagatik, urtero bezala, Europako Hizkuntzen egunean (irailak 26), Europar Batasunak bat egiten du Europar Kontseiluarekin, Hizkuntza Modernoen Europako Zentroarekin eta arlo horretan lan egiten

duten beste erakunde eta herritarrekin, baita Europako hezkuntza erakunde guztiekin, hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen ikasketa etengabea sustatzeko, lekuan lekuko ekitaldi eta ekintzekin.

Nafarroako gobernuak aniztasun linguistikoaren eta eleaniztasunaren alde lan egiten du, Europar Batasunaren zuzentarauei jarraituz, eta bat egiten du EBk duen hainbat hizkuntza ikasteko ikuspegiarekin, pertsonalki aberasteko balio baitu eta XXI. mendeko europar hiritartasunaren oinarri baita.